



AYUNTAMIENTO
URDAZUBI / URDAX
UDALA

URDAZUBIKO UDALA

Epaimahaiko kideak izendatzea, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko deialdietan

2023.eko Apirilak 3an 22. EBAZPENA, alkate udalburuak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira epaimahaiko kideak, honako honetan/hauetan: deialdia(k), lanpostu hutsak betetzeko; hain zuzen ere, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziari dagozkion lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 6.2 artikuluari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

2021eko abenduaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, hizpide dituen enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak, eta hartan aurreikusten da egitea administrazio publikoetan behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bat. Lege horrek, hamargarren xedapen gehigarrian, xedatzen du hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dela jarraikiz Konstituzioaren 149.1.18 artikuluari eta lehenbiziko xedapen gehigarriari, eta abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa).

Gero, onetsi zen 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan. Haren 6.2 artikuluan ezartzen da epaimahai kalifikatzaileak izendatuko direla egonkortze prozeduren deialdia onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen.

Honako argazkiak ezartzen dira epaimahaiko kide kopurua sekotiaz onartu eta biru

gutxienez, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko dela.

Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egileari horren berri eman, baldin badaude urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea). Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errekusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

Horiek horrela, eta erabiliz apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak (lege horren bidez arautzen dira Toki Araubidearen Oinarriak),

EBAZTEN DUT:

1. Epaimahaietako kide titularrak eta ordezkoak izendatzea, honako honetan/hauetan: deialdia(k), bete daitezen behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak.

2. Epaimahaien osaera zehazteko eredia onestea.

3. Ebazpen hau deialdia egin duen toki-erakundearen web-orrian argitaratzea.

Ebazpen honen aurka, hautara, errekurtsio hauetako bat aurkezten ahal da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenduko zaiona Nafarroan administrazioarekiko auzietan eskumena duen organoari, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita.



**AYUNTAMIENTO
URDAZUBI / URDAX
UDALA**

c) Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Urdazubi, 2023.eko apirilak 3an

Alkatea

Idazkaria

I. ERANSKINA.-EPAIMAHAIEN OSAERA

HONAKO DEIALDI HONETAKO KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA

Lanpostua: Administrari Laguntzailea

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren zer aletan argitaratu zen Ez ohizko 2022ko abenduak 17ko 247. Alean.

Deialdiaren esteka: <http://www.urdax.es/eu/proceso-extraordinario-y-de-consolidacion-de-empleo-temporal-concurso-de-meritos/>

Kide bakoitzaren izena, bi deiturak eta kargua:

Epaimahaiburua: Ignacio Ariztia Urriza

Ordezkoa: Cristobal Alzuyet Martín

Epaimahaikidea: Miren Arantzazu Iriarte Loiarte.

Ordezkoa: Aitziber Abasolo Larrazabal.

Epaimahaikide idazkaria: Javier Irigoyen Daguerre

Ordezkoa: Miguel Jose Belarra Tellechea.

Urdazubi, 2023.eko apirilak 3an

Alkatea

Idazkaria